

# noaua

Ostiral honetan zibalduko da NOAUAren erakusketa Sategin, Iantx botekin

Larunbat honetan, III. Antzerkizale Eguna


Inguruko herrietan baino gehiago hitz egiten da hemen euskaraz



**Has dadila  
NOAUA! Kulturaldia!**

# PSU

serigrafia



serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

[www.serigrafiaiosu.com](http://www.serigrafiaiosu.com)

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

## Udazken - Neguko denboraldia



FREESOUL

skunkfunk

IKKS


amarillolimon

Zatoz eta ezagutu gure markak!

Marije

Arropa denda

Etxebeste 3 - 943 36 11 06 - USURBIL



## FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

943 36 21 63

660 388 652 - 608 16 77 92

- Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
- **TANATOPRAXIA** eta **BERRERAIKETA** zerbitzua Euskal Herrian eta atzerrian.
- **ADN frogak** eta **ADN gordagailuak**
- **BEILATOKI GUZTIETAN** zerbitzuak
- **ERRAUSKETA** eta errauts-kutxak
- **ASEGURU** konpaini **GUZTIAK**, deiguzu zuzenean denetaz arduratzen gara
- Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia **DOAN** izango da gure eskutik

[info@funerariagonzalez.es](mailto:info@funerariagonzalez.es) [www.funerariagonzalez.es](http://www.funerariagonzalez.es)

# Auto Guria



**Auto Konponketa**

**Pre I.T.V.**

**Marka guztiak**

Osinalde, 9 • USURBIL (Gipuzkoa)  
☎ 943 363 298 • Faxe: 943 363 862

## Albiste iruditan

# Parte hartze prozesu hasiera, jendetsua

Urriaren 24an abiatu zen, etorkizuneko Usurbilgo hezkuntza eredu bateratua adosteko Udalak antolatua duen parte hartze prozesua. Jendetsua izan zen Potxoenean burutu zen lehen bilkura. Talde kideak elkar ezagutzuz hasi zuten saioa. Bilerako partaide bakoitzak, abiatu berri den prozesuaz dituen aurreikuspenak zeintzuk diren idazteko aukera izan zuen, antzeko beste prozesuak gidatu izan dituen Nicola Foronik proposatuta. Udal ordezkari eta herritarrak bildu ziren hitzorduan, hezkuntza arloko egungo egoeraren diagnosis aztertzeak ziren. Joan den astean, lan taldeetan banatuta garatzen hasitako gai honek jarraipena izango du hurrengo bileran ere. Bigarren hitzordua hain zuzen, azaroaren 7rako deitua dago, 18:30etan Potxoeneako goiko aretoan. Prozesu osoan bezala, bilkura irekia izango denez, herritar oro ber-



Bigarren hitzordua azaroaren 7an izango da, 18:30ean Potxoenean.

tara daiteke Udalak deituriko hitzordura. Otsailera arte luzatuko den prozesuan, lehen bileran hauetan identifikatutako interes edo beha-

rrei irtenbidea aurkitzeko aukera ezberdinak landu edota erabakitakoa martxan jartzeko eman beharreko pausoak zehaztu nahi dira.

## Laburrean

### 1952an jaiotakoekin kinto bazkaria

Aurten 60 urte betetzen dituzten herritarrek kinto bazkaria antolatu dute, abenduaren 2rako. Otordua ospatzeko hitzordua, 14:00etan jarri dute Atxega jatetxean. 1952. urtean jaioa bazara, eta bazkaritara joan nahi baduzu, izen emateko deitu telefono zenbaki honetara: 943 361 380. Apuntatzeko azken eguna, azaroaren 25a. Otorduko prezioa, 31 euro.

### Nafarroa Oinez-ekoak, laguntza premian

Eguraldiak Nafarroa Oinez 2012 jaia zapuztu zuen. Jaiaren antolatzaileek euskaltzaleei dei egin diete dirua eman dezaten. Kontu korrante hauek ahalbidetu dituzte:  
Euskadiko Kutxa: 3035.0145.66.1450044110  
Rural Kutxa: 3008.0077.14.0703177022  
CAN-Caixa: 2054.0082.10.9123939260  
Kutxa: 2101.0970.01.0012925384

### Odol emaleek idatziz jasoko dute jakinarazpena

Datorren astelehenean, azaroak 5, odol emanaldia 18:00etatik eta 20:30era bitartean herriko anbulatorioan. "Ematea dagokien emaleek idatzi bat jasoko dute hori adieraziz. Oraingoan, aldaketa dugu abisu garaian. Hemendik aurrera idatziz jasoko da, telefonoz, emalez edo sms bidez jaso beharrean", Odol Emaleen elkartetik aditzaera eman dutenez.

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberi, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaqua.com /// www.noaqua.com  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Uuskal preboak



Uuskal Herria?

#### Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

#### Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaqua.com.

Diseinu berria: Erroitx S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Aloña Esnaola,


Olatz Rezola, Iratxe Begiristain.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaiz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.  
Tirada: 2.800 ale.  
Lege-Gordailua: SS-668-96  
ISSN: 1136-6818.  
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Unai Agirre

## Garai aldaketa

Aste honetan sumatu ditugu lehen goiz freskoak; udarra azkenean bukatu da. Oraingoan bai. Aurreko igandeko ordu aldaketarekin, oraindik gehiago laburtu zaizkigu arratsaldeak. Goibeltasuna darie egun hauei, baina onddotarako garaia ere bada, nahiz eta batzuk, guri gehienetan gertatzen zaigun bezala, onddo bila joan eta gaztainak hartuta itzultzaren garen, eta pozik gainera!

Gaia da, honelako garaia, aldaketa suposatzen duen aroa izanik hausnarketarako tartea eskatzen didala buruak. Eta hor sentsazio gazi-gozoa geratu zait.

Krisi madarikatu - bedeinkatuak, kasu honetarako bigarren adjetiboa, Zubietako espetxearen mehatxua bertan behera bota du. Egia esan, Zubietan indar gutxi eskaini diogu gaiari, baina hor aritu dira "Arrats"eko lagunak gizarte eredu aldatu nahian, eta makro-espetxe sistema kritikatzan. Inongo itxaropenik ez genuen honekiko, eta krisiagatik behin behinenez baztertu dituzte adjudikatu gabeko proiektuak, Zubietakoa barne. Gizarte eredu polizial-represiboa baina, oraindik aldatu gabe dugu, eta okerrera doa gainera!

Gaia aldatuta, Zero Zabor bere lana egiten dabil, Errausketaren Kontrako Koordinadora ere handik hona, baina gizartean dagoen hondakinen kudeaketarekiko masa kritikoa, lokarturik gaude. Datu kuriosoa iruditu zait Atez Atekoa jartzekotan dauden herrietan, sistema honen alde dagoen koalizioak azken bozketan boto jaitziera jasan duela, baina Atez Atekoa duten herrietan eutsi diola. Soziologoa ez naizen aldetik, aterra dezakedan ondorioa da Atez Ateko hondakinen bilketa ona dela, baina ezagutzen ez dutenei beldurra sartzea lortu dutela. Kan-

paina ona egiten aritu dira, eta emaitza jaso dute.

Zubietan berriz, hondakinen bilketa zehaztu ezinda gabiltza. Atez Atekoa jartzeko sistema aurrera doan arren, atzeratzen ari da. Hemen ere kontraesana! Non eta Zubietan, ezin azkartu prozesua. Hori bai, zabor poltsaren %45 osatzen duen materia organikoa Zubietan tratatzeko prozesua aurrera doa, ahal duenak etxean konpostatuz, eta ezin dutentzako laster jarriko den auzo konpostatze edo konpostatze komunitarioaren bitartez. Adi beraz gai honekin, Zubietarrak.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | **Unai Agirre**

## Denda eta tabernetan euskal kantak kontsumitzeko deia, Usurbilgo Kantu Taldetik

Usurbilgo Kantu Taldetik, euskal abesbiak kontsumitzeko gonbita luzatzen diete herriko dendari eta tabernariei. NOAUA!ra bidali duten azken oharrean diotenez, "gure herriko dendariak eta tabernariak, beren egunerokoan, bezeroa euskaraz egitera probokatuz eta bultzatuz, gureak ditugun euskal kantak kontsumitzera ahalegindu daitezten nahiko genuke, horretarako, gure materiala eta laguntza eskaintzen diegularik".

Bestalde, joan den larunbatean ospatu zuten urriko kantujira. 35 bat lagun bildu zituen ekitaldiak. "Nahiz eta eguraldi aproposa ez egin, 35 bat lagun bildu ginen, bi ordu inguru, kantu zaharrak eta ez hain zaharrak kantatuz. Kantu giro ederrean ibiliz, gure herria eus-



Aurreko larunbatean 35 lagun elkartu ziren kantu jiran.

karatik eta euskaraz bizi dadin bultzatuz, kantatzeko joera na-

tural bat eskaini nahi diogu herriari, horretara nahi duen guz-

tia gonbidatuz", adierazi dute kantu taldetik.

# Bi ikastaro antolatu ditu Parekidetasun Sailak

**T**xapa feministak egiteko eta autodefentsa feministari loturiko tailer bana antolatu du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak, azarorako. Txapa feministak egiteko tailerra, azaroaren 14rako antolatu dute, 17:00etatik 20:00etara Potxoenean. Me-deak-eko kideek gidatuko dute saioa. Historian zehar emakume feministek eginitako aldarrikapenen lemak eta horiek islaturiko irudiak baliatuta, txapa propioak sortzeko aukera egongo da.

## IZEN-EMATEA, IREKITA

Autodefentsa feminista tailerra bi saiotan banatuko da, azaroaren 17an eta abenduaren 1ean, 10:00-14:00 artean Potxoenean. Zapalkuntzen aurrean emakume bezala har daitekeen jarrera aktibo eta iraultzailea da Autodefentsa Feminista eta horri buruz jardungo dute, Bilgune Feministak zuzenduko dituen bi saioetan.

Tailer hauetan izen emateko epea ireki dute jada. Parekidetasun Sailera deituta, 943 377 110 telefono zenbakira, edo parekidetasuna@usurbil.net helbidera idatzita apuntatu daiteke.



**Autodefentsa ikastaroa bi saiotan banatuko da. Lehena, azaroaren 17an hasiko da.**

## AZAROAK 8 OSTEGUNA, KONTSEILUAREN BILERA

Hurrengo bilera azaroaren 8an izango da Potxoenean, arratsaldeko 19.00etan. Usurbildar guztiak gonbidatuta daude bertara daitezen Parekidetasun Kontseiluan parte hartzera.

Urriaren 18an izan zuten lehen bilera eta bertaratutakoek Udalaren berdintasun politikaren ibilbidea izan zuten hizpide nagusi.

Parekidetasun kontseilua sortzeko beharra ere ikusi zuten eta ezinbestekotzat jo zen gizon eta emakumeen partehartzea, aberasgarriago izate aldera.

## Kolonbiako negoziazioak hizpide, V. Elkartasun Astean

Kolonbiako gobernuak eta FARC-eko ordezkariak hasitako negoziazio elkarriketen inguruko informazioa jasotzeko aukera izango da, datorren V. Elkartasun Astean. Azaroaren 7rako hitzaldia eta hilaren 9rako film proiektzioa antolatu ditu Usurbilgo Elkartasun Taldeak, Usurbilgo Udalak eta Mundubatek lagunduta. Gai honi buruz hitz egiteko, Luis Plaza Velez sindikalista kolonbiarra gonbidatu dute. Usurbilen izango da azaroaren 7an. Arratsaldeko 17:00etan harrera egingo zaio udaletxean, eta 19:00etan hitzaldia eskainiko du Sutegin, Usurbilgo Elkartasun Taldetik gogorarazi dutenez, abiatu den "prozesu honetan koloniar herritarrek paper protagonista jokatu behar dutela kontuan izanda".

Aipatu moduan bestalde, azaroaren 9an, film proiektzioa antolatu dute. "También la lluvia" pelikula ikusteko aukera egongo da, gaueko 22:00etatik aurrera Sutegin. "Ameriketako indigenen historia berridazteko eta baliabide naturalak kudeatzeko eskubidearen aldeko borrokak gogoratuko ditugu", adierazi dute antolatzaileek.

## Estresa kudeatzeko tailerra Haur Eskolan

Depresioa, antsietatea, lo hartzeko arazoak, segurtasun falta, beldurra, tentsio muskularrak, buruko minak, blokeoak edota alergiak eragin ditzake egungo gizartean hain presente dugun estresak. Estresa kudeatzeko hain zuzen, tailerra antolatu dute azaroaren 8an Haur Eskolan. Haur eta helduentzako saio bana burutuko da. Hitzorduotan, estresa kudeatu edo sendatzen laguntzeko eta erlaxazioa mantentzeko instrukzioak eman go dira, musikoterapia eta arnasketa ariketak baliatuta. Parte hartzaileek dituzten zalantzak argitzeko aukera ere egongo da. Helduen saioa, 15:15-16:15 artean, eta haurrena, 17:00-18:00 artean burutuko da. Tailerreko prezioa, 6 euro. Victoria Mendoza psikoterapeutak bideratuko ditu saio hauek. Izen emateko edo informazio gehiago: 609 465 819 (Nieves) edo nahualeh@yahoo.es.



## Aginagako erriberako bidea zabalik

Aginagako erriberako bideko lanak amaitu dira jada. Auzotar eta herritarrak bertatik igarotzeko aukera dute orain. Excavaciones Bergaretxe enpresak egin ditu txukuntze lanak (argazkia: Udala).

# Usurbil arnas gunea, euskara

Euskararen kaleko erabileraren neurketaren inguruko emaitzak (eta II)

**S**oziolinguistika Klusterrek euskararen erabilera zenbatekoa den jakiteko Usurbilen egin dako neurketaren emaitzak aurkeztu genizkizuen aurreko astekarian. Oraingoan, Soziolinguistika Klusterrekoek Usurbil inguruarekin alderatuta, erabilerari dagokionean zer nolako emaitzak jaso dituzten, horren berri ematera goaz. Aldea badago eta. Usurbilgo euskararen kaleko erabilera maila, inguruko hainbat udalerrri, Gipuzkoa, EAE edota Euskal Herrikoaren oso gaintetik dago.

Soziolinguistika Klusterrek eginiko neurketa honen arabera, %13,3koa da euskararen erabilera Euskal Herrian. 2001eko ehuneko berean dago, eta Soziolinguistika Klusterretik ondorioztatu dutenez, duela hamar urtetik hain zuzen, "euskararen kale-erabilera bere horretan dagoela esan daiteke, trabatuta". Lehen neurketa burutu zenetik, 1989. urtetik, bilakaera positiboa izan du euskararen kaleko erabilerak, 2,5 puntu egin baitu gora. Baina ikertzaileen ustez, "egungo baldintza soziolinguistikoeekin euskararen erabilerak goia du". Halere diotenez, "erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobekak dira".

Neurketa berri honek, hizkuntz aniztasuna ere agerian



Haur batzuk jolasean, Zubietako parkean.

utzi du. Euskara, gaztelania edo frantsesaz gain, kalean beste hizkuntza batzuk entzuten dira Euskal Herrian, eta lehen baino gehiagotan. Aurreko neurketatik oraingora gora egin dute; %2,6tik %3,7ra.

## "DATU GAZI-GOZOAK"

Herrialdeka, askogatik Gipuzkoa dugu lurralde euskaldunena. Euskararen erabilerak azken bi hamarkada hauetan etengabe gorantz egin ostean, gazteen artean gehien, %32,7an dago egun. Ehuneko hamarretik behera aldiz, gainerako herrialdeetan. Datu baiko-

rrenak Iparraldetik datoz. "Beheranzko joera jaso genuen azken neurketetan. Baina oraingoan, duela bost urteko erabilera bera jaso dugu", berri eman dio NOAUA!ri Soziolinguistika Klusterreko kide Olatz Altunak.

Adin tarteka, zenbat eta gazteago orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. Gazteen kasuan ordea ez da ezagutza bezainbeste igo. "Erdaraz hobeto moldatzen direnak gehia-

*Ikertzaileen iritziz, "erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobekak dira"*

go direnez, erdararako saltoa errazagoa da", gogorarazi du Altunak. Gainerakoa, adin tarte guztietan erabilerak gorantz egin du, adinekoetan izan ezik.

Emaitzak eskutan, Olatz Altunak laburbildu digunez, "datu gazi-gozaok" eskuratu dituzte. Euskararen kale erabileraren eboluzioa gertutik jarraitu asmo dute. Hurrengo neurketarako data jarri dute jada; 2016an burutuko dute.

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

**OSTEOPATIA ZERBITZUA**

KAYLOR ALTUNAKO  
OSTEOPATIA U. N. FISIOTERAPIAKO  
KAL. 204 170

**HITZORDUA:**  
607 85 32 08

Zubiaurrenea 4. © 943 361 951

**LATAILLADE**

**ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

# aren erabilerari dagokionean



Euskara ikastea diruz laguntzen jarraituko dute Buruntzaldeko Udalek. Eskualdeko euskaltegietako arduradunekin batera ageri dira udal arduradunak, Potxoenean duela gutxi eginiko agerraldian.

## USURBIL ETA INGURUA

Soziolinguistika Klusterrak emandako datuak dira hauek. Ezagutza eta erabilera askoz handiagoa da Usurbilen.

### USURBIL

- Ezagutza: %69,9.
- Erabilera: %61,9.
- Espero daitekeen erabilera: %41,1.

### HERNANI

- Ezagutza: %55,8.
- Erabilera: %39,1.
- Espero daitekeen erabilera: %24,3.

### URNIETA

- Ezagutza: %53,9.
- Erabilera: %23.
- Espero daitekeen erabilera: %22,4.

### DONOSTIALDEA

- Ezagutza: %43,4.
- Erabilera: %20,3.
- Espero daitekeen erabilera: %13,7.

### GIPUZKOA

- Ezagutza: %52,9.
- Erabilera: %32,7.
- Espero daitekeen erabilera: %21,5.

### EAE

- Ezagutza: %37,4.
- Erabilera: %16,1.
- Espero daitekeen erabilera: %9,9.

### EUSKAL HERRIA

- Ezagutza: %27,6.
- Erabilera: %13,3.
- Espero daitekeen erabilera: %5,1.

**Oharrak:** erabilera datuak 2011koak dira. Ezagutza eta espero daitekeen ezagutza datuak, 2006koak (Euskal Herrikoak izan ezik, hauek 2001ekoak).

## ERABILERAREN

### BILAKAERA

#### USURBIL

- 2001: %54,4.
- 2006: %57.
- 2011: %61,9.

#### USURBILGO ERDIGUNEA

- 1993: %64,2.
- 1997: %68,3.
- 2001: %71,1.
- 2006: %72,4.
- 2011: %73,2.

#### DONOSTIALDEA

- 1993: %12,5.
- 1997: %16,9.
- 2001: %21,5.
- 2006: %21,3.
- 2011: %20,3.

#### GIPUZKOA

- 1989: %23,3.
- 1993: %23,9.
- 1997: %27,6.
- 2001: %29,5.
- 2006: %32,1.
- 2011: %32,7.

#### EAE

- 1989: %11,5.
- 1993: %13,5.
- 1997: %15,2.
- 2001: %15,9.
- 2006: %16,8.
- 2011: %16,1.

#### EUSKAL HERRIA

- 1989: %10,8.
- 1993: %11,8.
- 1997: %13.
- 2001: %13,3.
- 2006: %13,7.
- 2011: %13,3.

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**Otar-Goxo**  
Elkarguak

Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

**WHEEL ACADEMIA**

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa - Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketa teknikoak - Hizkuntzak

629944690  
Galtzaragaña 1, behea USURBIL

# Sutegiko Udal Liburutegia, garai berrietara egokitzen



Irudian, ordenagailu eramangarria eta bi liburu elektronikoko berriak.

**T**eknologia berriek urte gutxitan hartu duten indarraren beste lekukoetako bat dugu Sutegi udal liburutegia. Garai bateko eskaintza zabaltzen eta garai berrietara egokitzen joan dira. Bide horretan, zenbait berrikuntza txertatu dituzte duela gutxi. Zehaztasunak Bakartxo Iguaran udal liburutegiko langileak dakartza lerroetan.

## Urriaren 24ko Liburutegien Eguna baliatu duzue berrikuntza batzuk txertatzeko. Zeintzuk?

**Bakartxo Iguaran.** Teknologia berriekin loturiko berrikuntzak ia urtebetetik datoz. Urtebete bada, liburutegiko berri emateko bloga martxan jarri genuela. Gero sare sozialetan sartzeko ere aprobetxatu genuen; Twitter eta Facebook-en. Liburutegien Eguna aprobetxatuz, eta jendea zain genuenez, Santixabeletako bideo eta argazkiak maileguan ditugu. Iaz bi ale genituen, baina mailegatuena izan zen. Jendea zain geneukan aurtengorako. Horrekin batera, bi liburu elektronikoko kaleratu eta ordenagailu eramangarri bat ere jendearen eskuragarri jarri dugu. Liburu elektronikoko bakoitzak 400 dokumentu baino gehiago ditu; nobelak gehienbat, baina baita gai desber-

dinei buruzko liburuak. Klasikoak eta egile eskubideez libre diren dokumentuak bai, baina best seller edo liburu berriena bilatzen duenak ez du aurkituko liburu elektronikotan, ezin dugulako, egile eskubideen kontuagatik. Mailegatzeko baimenik ez dute ematen edo oso prezio altuan ematen dute lizentzia. Liburu elektronikoen helburua, jendeak gailuok ezagutu eta liburutegiko fonda osatzea da.

## Mailegatu ahal izango dira?

**B. I.** Bai, harrerara etorri, liburutegiko txartela eta NAN edo EHNA aurkeztu eta idatziz dagoen araudi bat sinatuz gero. 16 urtetik gorakoek mailegatu dezakete, 30 egunetarako. Ordenagailu eramangarriari dagokionez; lau ordenagailu ditugu baina batzuetan motz gertatu gara, jende asko etortzen da eta kontsultak egitera. Ordenagailu eramangarri bat ekartzea aukera on bat zela iruditu zitzaigun.

Beste ordenagailuak ordu erdiko txandan erabil daitezke. Ordenagailu eramangarria ordubetez Interneten kontsultak egin edo ofimatika lanetarako erabili ahal izango da, beti ere, liburutegiko txartela eta NAN edo EHNA erakutsi eta agiria sinatu ostean.

*“Bi liburu elektronikoko eta ordenagailu eramangarri bat eskuragarri jarri ditugu”*

## Ipuin kontalariek harrera bikaina dute

**Antolatzen dituzuen ipuin kontaketa saioak arrakastatsuak izan ohi dira. Non dago gakoa?**

**Bakartxo Iguaran.** Batetik inoiz eten ez den tradizioan. 90. hamarkadatik dator ohi-tura. Haurrei erakargarria egiten zaie eta gurasoek ere, ona den zerbait dela entzun dutelako ekartzen dituzte haurrak. 55 haur zeuden azkeneko Pello Añorgaren emanaldian. Hainbesteko arrakasta duenez, adin tartea zehazten dugu. Nahiago dugu jende gutxiago etorri eta kalitatea lehenestea. Horrekin giro goxoagoa lortzen da, batzuetan giro magikoa, oso berezia. Aurrekoan Pello Añorga eta Ixabel Agirresarobe etorri ziren, bideoak blogean ikus daitezke. Azaroan Yolanda Arrieta dator. Liburu berri bat aurkeztuko du, 6 urtetik gorakotzat.

## Bloga du eta sarean dago Udal Liburutegia

Sutegi udal liburutegiak duen eskaintza herritarrengana gerturatzeko jauzia emana du jada. Blog batean duten katalogoa, liburutegiari loturiko albisteak edota erabiltzaileentzat interesgarriak izan daitezkeen hainbat esteka bildu dituzte. Gainera, Facebook eta Twitterren ere bere tartea du udal liburutegiak. Hona hemen, Sutegirekin hartu emanetan jartzeko bide desberdinak:

**Telefonoa:** 943 360 692.

**E-posta:** biblioteca@usurbil.net

**Bloga:** liburutegiak.blog.euskadi.net/usurbil/

**Facebook:** Usurbilgo Sutegi Udal Liburutegia

**Twitter:** twitter.com/usurbil

**Youtube:** youtube.com/sutegi05



Blogaren atari nagusia.



# Begetarianoak eta proteinak

**E**z da Usurbiltzen BasHerri taldea begetarianismoarekin zeri-kusirik duen taldea. Doala hori aurretik. Izatez bertako oilasko eta txahal haragi ekologikoa gustora asko hartzen dugu taldekide askok. Hala ere, jaten dugunari bai ematen diogula garrantzia. Eta begetarianismoari buruzko informazioa eskuarte, gai honi buruz argi pixka ekartzekotan dator artikulua hau.

Askotan entzun ohi da begetarianoen dietak ez duela nahikoa proteina edo ez duela beharrezkoa den guztia ematen. Gauzak ondo eginez gero hori ez da egia. Proteinak aminioazidoz eginak daude, horietako batzuk, aminoazido esentzialak janarietan hartu beharra dago, gorputzak ezin baititu sortu.

Proteinen kalitatea aminoazido esentzial guztiak edukitzearekin neurtzen da, baten bat falta bazaio proteina horren balio biologikoa txikiagoa dela esan ohi da. Animalia jatorriko proteinek aminoazido esentzial guztiak dituzte. Esneki eta arrautzak jaten dituzten begetarianoek beraien eguneroko proteina beha-



“Kalitatezko proteina lortuko dugu lekaleak eta arroza bateratuta”.

rrak beteta dituzte. Hala ere, jatorri begetaleko janariak ondo bateratuta kalitatezko proteina lor daiteke eta eguneroko beharrak beteta eduki, barazki gehiago janda bitamina, gatz minerale eta fibran aberatsagoa den dieta bat hartuaz. Horrela, zerealek eta haziek lisina aminoazidoa falta dute eta lekale, tuberkulu eta fruitu lehorrek metionina. Beraien artean konbinatu behar beraz. Kalitateko proteina lortuko dugu lekaleak eta arro-

za bateratuta, lekaleak eta artoa edo garia (babarrunak ogi puska on batekin), soja gari eta sesamoarekin edo arrozarekin, soja fruitu lehor eta sesamoarekin adibidez. Konbinazio hauek kontuan hartuta, proteina aldetik, begetariano batek bere beharrak soberan ase ditzake.

Begetarianoa ez bazara eta horrelako dieta bat egiten hasi nahi baduzu, artikulua honetan duzuna baino informazio gehiago behar duzu.

## NOAUA! Txiki

# Aquariumen izan dira HH5eko ikasleak

**G**u HH5eko haurrak gara, asko marrazten dugu. Orain itsasoa gaia ari gara lantzen eta lan pila bat egin dugu. Aquariumera joan ginen eta marrazoak, itsas zaldia, suge pozointsuak, itsas dordokak, pailazo arrainak, manta arrainak... ikusi genituen.

Gero jada gelan, bakoitzak gure itsas-maskorra margotu genuen ixipuz. Andereinoek lokarria jarri zioten eta oparitxoarekin joan ginen etxera poz-ozik.

Baina ez da hori izan egin dugun artelan bakarra. Arrainak gaitzat hartuta, akuarela eta errotulagailuak erabiliz artelan ederrak egin ditugu. Arrain mota ezberdinak margotu ditu-



“Cesar Manrique margolariaren lanak eredu bezala hartu eta marrazkiak egin ditugu”.

gu, eta horretarako Cesar Manrique Lanzaroteko margolariaren lanak eredu bezala hartu ditugu. Arrainak egiteko modu berezi bat zuen eta guri asko gustatu zaigu.

Zuen gustukoak izatea espero dugu. Ia asmatzen duzuen zein arrain dau den hemen marraztuta... Zein da mailu-arraina? Eta marrazoa? Eta mihi-arraina?

# Ander Lipus: “Etor daitezela

Larunbatean Sutegin arituko da “Publikoari gorroto” antzezlanarekin

**A**steburu honetan hasiko da NOAUA! Kulturaldia. Ekitaldien artean da Huts Teatroa taldearen “Publikoari gorroto” antzezlanaren larunbat honetan Sutegin, arratsaldeko 20:00etan hasita. Ander Lipus da obra honetako aktoreetako bat. Sutegin ikusi izan dugu aurretik. Unai Iturriaga bertso-lariarekin batera, esate baterako, “Erregea eta bufoia” saioan. Telefonoz egin diogun elkarrizketan aitortu digunez, “*Erregea eta bufoian* agertzen diren pertsonaia ero horietako batzuk ere agertzen dira *Publikoari Gorroto* obran”.



Ander Lipus (argazkian), Iñaki Ziarrusta eta Miren Tirapu dira antzezlan honetako aktoreak.

**"Aktore bat, bi ikusle, agertoki bat. Besterik ez du behar antzerkiak". Horrela hasten da obraren sinopsia. Antzerkiaren inguruko hausnarketa egiten da akaso?**

**Ander Lipus.** Esan behar da "Publikoari gorroto" 1985ean idatzitako antzezlan bat dela. Lehen aldiz irakurri nuenean, horrelako inpaktu bat jaso nuen. Gutxitan gertatzen da testu bat irakurri eta hain inpresionatua geratzea.

Egia da badagoela antzerkiari buruzko gogoeta bat lan honetan, baina haratago doa asuntua: ikusleak zertan bilakatzen garen ikuskizunaren aurrean. Pasiboak garen edo ez, edo zertan bilakatzen garen bortizkeria baten aurrean batez ere. Eta horren aurrean, nola geratzen garen blokeaturik, nola erreakzionatu jakin ezinik. Nik uste dut bortizkeria eta ankerkeriaren inguruan badagoela gogoeta bat. Hori dena teatroaren jolasetik bideratua.

**1985ean idatzitako obra bere horretan taularatuko duzue ala egokitu egin behar izan al**

**duzue?**

Zorionez Xabier Mendiguren bizirik dugu! Berak esaten du 1985ean idatzia dagoela eta oso punkia dela. Garai horretan punk-ak indar berezia zuen. Baina gure ustez merezi

du garai hauetan ere taularatzeak. Gauza batzuk egokitu behar izan ditugu, baina Xabierrekin berarekin lan egin dugu.

Nik uste dut aberastu egin dugula; nik ditudan beste per-

sonaia batzuekin osatuz. Taularatzekoan ere, euskalkietara jo dugu. Badago Iparraldeko euskaran mintzo den pertsonaia bat; Donostiako euskara jator-jatorrean beste bat, bizkaitarrez ere bada hitz egiten

## “Huts Teatroarekin euskara hutsean sortutako obrak eskainiko ditugu”

**Hasi orduko, emanaldi ugari dituzue lotuta. Tamalez, ez da ohikoa ez antzerkian ezta beste kultur diziplina askotan. Pozgarria izango da, ezta? Zein da sekretua?**

**Ander Lipus.** Azken finean, teatroa ez da pertsona bat, kolektibo bat da. Oso ondo dago aktoreen alde artistikoa lantzea. Baina hori bezain inportantea da beste zutabe bat, Artedramak betetzen duena: administrazio, kudeaketa eta banaketa lana. Urte hauetan hori lantzen ibili gara Artedraman, eta ikasi dugu

asko HarriXuri eta Le Petit Theatre de Pain taldeen esperientzietatik. Nik uste dut hori dela gakoa.

Teatroa ez dela bakarrik ideia artistiko bikainak izatea, baizik eta lan talde hori sendotzea eta horretara dedikatzea. Azken batean, merkatu baten barruan zaude teatroa egiten. Zure obra eman egin nahi duzu eta jendea dago horretara lanean. Eta guk lan talde hori osatzea lortu dugu.

**Huts Teatroa aurten sortu da, Artedramaren babesean (Arte**

**Eszenikoen Plataformaren atarkepean). Zein beharrei erantzuteko osatu duzu Huts Teatroa?**

Uste dut Huts Teatroarekin zigu moduko bat sortzen ari garela. Ez ditugu obra *bilingueak* egingo, soilik euskara hutsean sortutakoak taularatuko ditugu. Eta mugak gaindituz, Iparraldean eta Hegoaldean eginez antzerkia.

Gure imaginario geografiko horretan, komunitate euskaldunari antzerki-lan bat eskaini nahi diogu. Gero komunitateak esango du maite duen edo ez.

# teatroaz gozatzera”



NOAUA!k antolatut duen antzezlan honek III. Antzerkizale Egunarekin bat egin du. Irudia, Antzerkizale Eguna aurkeztu zeneko prentsaurrekokoa da.

duenik... Orohar, indartu egin dugula uste dut. Bukaera lehen punkiagoa zen eta pixka bat goxotu egin dugu. Uste dut poetikoagoa dela orain bukaera, lehen ankerragoa zen.

## MANEX FUCHEN LANA, FUNTSEZKOA

**Dagoeneko zuzenekoei ekiteko gogo biziz izango zarete. Hor hartzen zaiolako benetako neurria obra baten zuzenekoari, ezta?**

Teatroak ez du zentzurik publiko baten aurrean ez bada eskaintzen. Beste tenperatura bat hartzen du obrak eta hor ikusten da zerk funtzionatzen duen ondoen. Dena den, inportantea da agertokira igo aurreko lan guztia eta egiten duzun horrekin konbentziturik egotea. Zentzu horretan, hor dago Manex Fuchen zuzendari lana.

**Sutegin egon izan zara aurretik. Bertsolariekin batera "Erregea eta bufoia" saioarekin, beste obra batzuekin...**

## Gustuko plaza al da Ander Lipusentzat?

Niretzat berria den plaza dela esango nuke. Areto txikia da, goxoa, eta hori eskertzen da zeren nire teatroak badu hurbiltasun puntu bat. Eta nik horri garrantzia ematen diot, nik egiten dudun teatroaren neurria ematen duelako. Ez dut teatro askorik egin bertan baina ezaguna egiten zait aretoa. "Erregea eta bufoia"-n agertzen diren pertsonaia ero horiek agertzen dira "Publikoari Gorroto"-n.

Niretzat gauza inportanteena publiko bat bilatzea da, ordea. Publiko egonkor bat lortzea; nik egiten dudun teatroarekin, nire berezitasunekin publiko hori lortzea. Zeren uste dut jendeak identifikatzen duela lan bat.

Nik eskatuko nuke han izan dudun publiko hori hurbiltzea eta beste teatro mota bat ikustea, inongo aurreiritzirik gabe. Antzerkizale Eguna ere antolatuta da egun horretan (larunbat

honetan) eta horrek jendea erakarriko duela pentsatzen dut.

## "IZENBURUAK BADU BERE INDARRA"

**"Publikoari gorroto" ez da izen oso komertziala antzezlan baterako (edo bai). Probokaziotzat har daiteke akaso?** Kar, kar... Hasieran, nik ere horrela ikusten nuen. Titulu horrekin... Baina obraren izena hori da. Gainera, zerbait sor dezake izenak berak ikuslearen baitan, eta horrek ere badu bere indarra. Etortzekoak direnak, beraz, etor daitezela teatroaz gozatzera.

## "Publikoari gorroto"

**Azaroak 3 larunbata** 20:00etan Sutegin.

**Sarrerak:** egunean bertan takillan, 10 euro. Aurretik 8 (Txiribogan, NOAUA!n).

NOAUA!ko bazkideek, 6 eurotan (soilik aldeztu aurretik eta soilik NOAUA!ko egoitzan).

## III. ANTZERKIZALE EGUNA KLOWN TAILERRA

**10:00** Potxoenean, May Gorostiagaren (Intujai) eskutik. Iraupena: 3 ordu. Plaza mugatuak: txerriki@gmail.com

## IDAZKETA TAILERRA

**11:00** Potxoenean, Galder Perezen eskutik. Iraupena: ordu eta erdi. Plaza mugatuak: txerriki@gmail.com

## KALEJIRA PRESTATZERA

**15:00** Arratsaldeko kalejira prestatzera. Izen ematea: txerriki@gmail.com

## KULTURA PLAZARA

**17:00** "Kultura plazara" antzezlan: Irrien Lagunak. Tokia: Kaxkoan (Mikel Laboa plazan edo frontoia).

## KALEJIRA

**18:00** Euskal Herriko antzerki taldeekin kalejira mundiala! Herritarrei parte hartzeko deia egiten diete antolatzaileek.

## MANIFESTUA

**19:00** 2012ko Antzerkizale Eguneko manifestuaren irakurketa. Jarraian, "...Eta behia agertu zen": Aldatzen Laguntzen antzerki taldea.

## ANTZERKIA

**20:00 "Publikoari gorroto":** Huts Teatroa. Sutegin. Sarreak: 8 euro ohiko tokietan, egunean bertan 10. Bazkideek aldeztu aurretik 6 eurotan.

**Antolatzaileak:** EHAZE (Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak), NOAUA! Kultur Elkarteak eta Txerriki Antzerki taldea.

**Laguntzailea:** Usurbilgo Udala.

**Babesleak:** Kutxa Gizarte Ekintza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Usurbilgo Udala.

# ZUEK EGITEN DUZUE POSIBLE

Herri aldizkaria, aldizkariaren banaketa,  
noaua.com, Udajolas, Inauteri Jaia, Kulturaldia,  
Santo Tomas azoka, bestelako argitalpenak...

## EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA JASO OPARIA!

**noaua**

euskararen aterpe



### BAZKIDETZA

IZENA: \_\_\_\_\_ ABIZENAK: \_\_\_\_\_

JAIOTZE DATA: \_\_\_\_\_ JAIOTERRIA: \_\_\_\_\_

N.A.N ZENBAKIA: \_\_\_\_\_

HELBIDEA: \_\_\_\_\_ HERRIA: \_\_\_\_\_ POSTA KODEA: \_\_\_\_\_

ETXEKO TELEFONOA: \_\_\_\_\_ MUGIKORRA: \_\_\_\_\_

POSTA ELEKTRONIKOA: \_\_\_\_\_ K/K ZENBAKIA: \_\_\_\_\_

Usurbilgo Noaua! kultur elkarteko bazkide izan nahi dut eta nire kontutik bazkidetza kuotaren helbideraketa (36€) baimentzen dut.

Sinadura:

Usurbilen,

# Asteburu honetan hasiko da NOAUA! Kulturaldia

**I**railaren 7an argitaratu genuen NOAUA! aldizkariaren 500. alea. 1996ko udaberrian jaio zen Usurbilgo herri aldizkaria eta, geroztik, 16 izan dira igaro diren urteak. Orditik hona gauza asko gertatu dira. Aldizkaria izan da gertaera horien guztien lekuko. 500 zenbakietan oinarrituz, 16 panel atondu ditugu erakusketara batean. 1996tik hona igaro diren 16 urteei dagozkien 16 panel handi. Bertan jaso ditugu albiste deigarriak, bitxiak... Ez dira denak. Baina daudenak, izan badira.

Azaroaren 2an, luntx batekin ospatuko dugu NOAUA! aldizkariaren 500. alea. Ekitaldi xumea bezain atsegina izango da. Idoia Torregarai hitz batzuk egingo dizkigu Sutegin, 16 urteotako ibilbidearen erakusgarri izango direnak. Eta segidan, erakusketan jasotakoa azalduko da, labur-labur.



1996. urtetik honako gertakari deigarrienak konpilatu ditugu 16 panel handitan.

## “Izanak dirau 1512”, dantza garaikidea

Ibarrako dantza taldea da Allur. “Oraingo honetan dantza eskolako gaztetxoiei gure historiaren zati bat dantzaren bidez bizitzeko aukera eman diegu”. Alurr dantza taldearen beste aurpegia da eskola, taldearen etorkizuna ziurtatzen duena. “Horregatik, etorkizuneko dantzarietara gure historia eta tradizioz antz begiratzeko aukera eman nahi diegu. Gure etorkizuna beraiena delako, ez dezaten memoria gal”. Antzeko argudioekin azaldu izan dute “Izanak dirau, 1512” izeneko ikuskizuna. Usurbilen izango ditugu **azaroaren 10ean larunbata**, kiroldegian. Gaueko 22:00etan hasiko da. Sarrarak 6 euroan. NOAUA!ko bazkideentzat 5 euro (aldez aurretik NOAUA!ko bulegoan).

## “Gazta zati bat”, Jon Maiaren dokumentala

“Gazta zati bat” dokumentalak euskal gatazkaren gaia era berritzailean aurkeztu nahi du: gertakizun handien hurbileko begirada eskaintzen du, historia handia letra txikiarekin kontatzen du, gertutasunez, intimitasunez, umorez... Giza faktorea azpimarratzen du eta historiaren eta albisteen kronika estereotipoetatik aldentzen da. Dokumental hau Idiazabalgo Nazioen Mundua herri ekimenak aurrera eramandako egitasmoa da eta Jon Maia bertsolariak zuzendutako lana da.

**Azaroaren 11n igandea**, 19:00etan Sutegin. Sarrera doan.

## “Leterekin kantu berbetan”, Jon Sarasua

Kantu Taldearekin batera antolatua, Jon Sarasuaren hitzaldi-kantaldiaz gozatzeko aukera izango dugu **azaroaren 30ean ostirala**, Sutegin. Sarrera doan.



## Dantza garaikidea, zinea, kantaldia...

Urtero bezalaxe, NOAUA! Kulturaldiaren eskaintza oparoa izango da. Lehen aldiz, dantza garaikideaz gozatzeko aukera izango dugu. Allur taldekoak Kiroldegian izango dira azaroaren 10ean (irudian).

**Javier Orbegozo**  
·ITURGINTZA  
·GASA ·BEROKUNTZA  
659 602 789  
943 37 29 37  
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

Zuen publizitatea hemen  
943 360 321  
publizitatea@noaua.com

# Azaroaren 11n Gorbeira joateko gonbitea, Andatzakoekin batera



Ibilaldiak 22 km ditu eta 5 ordu eta 30 minututan egitea aurreikusi dute.

**A**ndatza Mendizale Elkartekoek azaro-ko irteera lotu dute jada; Gorbeira joateko proposatzen du bilguneak, hilaren 11n. 22 kilometrotako ibilbidea osatuko dute, bost ordu eta erdiko tartean. Goizeko 7:00etan jarri dute abiatzeko hitzordua, Oiardo Kiroldegian. Autobusez egingo dute joan etorria. Izena aldeztu aurretik, hilaren 7a baino lehen eman beharko da eta apuntatzerakoan 20 euroko ordainketa egin behar da. Plaza mugatuak egongo direnez, lehentasuna Andatzako kideek izango dute. "Otordua egingo dugu ibilbidea amaitutakoan. Janaria norberak eraman behar du eta edaria Andatza MKT-ek eramanango du", ohartarazi du antolatzaileak.

## GORBEIARA IRTEERA

- **Azaroaren 11n, igandea.**
- **Irteera nondik:** Oiardo udal kiroldegitik.
- **Ordua:** Goizeko 7:00etan.
- **Garraioa:** autobusez.
- **Non eman izena:** Andatza Mendi Kirol Taldeko 2101.0069.16.0121883656 kontu zenbakian (Kutxa).
- **Azaroaren 7a baino lehen.** Izena ematera-koan 20 euro ordaindu behar dira.
- **Garraioaren prezioa:** 20 euro. Ibilaldiak 22 km ditu eta 5:30 ordutan egitea aurreikusten da.
- **Informazio gehiago:** [www.andatza.com](http://www.andatza.com)
- **Antolatzailea:** Andatza Mendizale Taldea.

## Argazki lehiaketa

**A**ndatza Mendizale Elkartek antolatzen du II. Argazki Lehiaketa; "Oria ibaia Usurbilen" izenburupean. Argazkiak azaroaren 15eko arratsaldeko 20:00ak baino lehen aurkeztuko beharko dira. Lehiaketari buruzko gainerako oinarriak [www.andatza.com](http://www.andatza.com) web orrian daude ikusgai.

## Futbol partidak

Azaroaren 1ean jai izanik ere, ez da futbol denboraldiaren martxa etengo asteburu honetan. Usurbil FT taldekoen partidak hauek izango dira:

2012/11/3, larunbata:

Nesken taldea, 15:30ean.

Jubenilen taldea, 17:30ean.

## Behobia-Donostiara autobusez joateko aukera

Iaz bezala, aurten ere Behobia-Donostia proban parte hartu asmo duenak autobusez egin ahal izango du Usurbildik Behobiarako eta Donostiatik Usurbilerako joan etorria. Autobusa antolatu dute, azaroaren 11rako. Goizeko 8:45etan irtengo da Bordatxo paretetik. Lekua bada oraindik, izen emateak beraz irekita jarraitzen du, 666 987 083 telefono zenbakian. Prezioa, 10 euro.



Azaroaren 11n izango da lasterketa.

## Eskubaloitako partidak Oiardo kiroldegian

**2012/10/31, asteazkena:**

Jubenil mutilak. 20.00h

Usurbil K.E. - C.D.B. Leizaran

**2012/11/03, larunbata:**

Alebin neskak. 9.30h

Udarregi 6 - Ondarreta

Infantil neskak. 10.30h

Udarregi B Usurbil - Aiala Zarautz

Infantil neskak. 11.30h

Udarregi C Usurbil - Urnieta

Kadete mutilak. 17.30h

Usurbil K.E. - Donibane Eskubaloia

Senior mutilak, 2. nazionala. 19.00h

Atez Ate Usurbil - C.B. Urduliz

**Jose Aizpurua**  
**Unanue eraikuntzak S.L**  
teilatuak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# Usurbil Kirol Elkarteak

Eskubaloit taldeak ilusioz hasi du 50. urteurreneko denboraldia eta ospakizunak prestatzen hasi dira



2013an beteko ditu 50 urte Usurbil Kirol Elkarteak.

**B**erezia, ezohikoa izango da hasi berri den denboraldia Usurbil Kirol Elkartearentzat. Kirol urte honekin, mende Erdiko historia osatuko baitu, udalerrri honetako eskubaloit taldeen bilguneak. Horregatik, 2013 ospakizun urtea izatea nahi dute, ahal bada gainera, garaipenaren tituluren bat eskutan dutela.

Helburu hori lortzeko, urriko lehen asteburuaz geroztik lanean dira maila desberdinetako mutil eta nesken eskubaloit taldeak. Guztira, 150 jokalarit inguru, taldeotan banatuta: mutiletan; seniorrak 2.nazionala, seniorrak 2.territoriala, jubenilak, kadeteak, infantilak. Nesketan: seniorrak 2.nazionala, jubenilak, kadeteak eta infantilak. Zuzendaritza taldetik NOAUA!ri aipatu diotenez, "jendearekin oso pozik gaude".

## "IA TITULUREN BAT LORTZEN DUGUN"

Taldez talde aztertuta, 14 jokalaritako senior taldea osatu dute nesketan, bederatzita hamarna jokalaritako jubenil eta kadeteetan. Kopuru aldetik talde jendetsuena, infantilak izango dira nesketan, guztira 30 jokalarit baitituzte aurten, hiru taldeetan banatuta. "Oinarri ona du-

gu lanean hasteko. Oso pozik gaude infantil mailan izena eman duten guztiekin. Esperantza askorekin gaude", adierazi digu Usurbil Kirol Elkarteako kirol alorreko zuzendari Manzanok. Gaineratu digunez, "2.nazionalerako ere perspektiba politak ditugu, paper ona egin daiteke. Kadete eta jubenilak ere, Gipuzkoako Txapelketan parte hartzeko moduan ikusten ditugu".

Senior mutilen 2. nazionalerako taldean ere, denboraldi ona egin dezaketen itxaropena dute. "Ondo ari dira lanean. Iazko talde bera dugu, bajaren bat egon da, baina 2. territorialetik igotako jendearekin errekupe-ratu da", adierazi du Manzanok. 15 jokalarit osatu dute 2. territorialeko taldea. Kasu honetan, helburua, "etorkizuneko taldea mantentzea da. 2. nazionalerako taldea elikatzeko eta datorren urtean jubenil asko mailaz igoko direnez, talde hori izaten segitzeko ere".

Kadete nesken taldearekin gertatu bezala, mutilena ere jokalarit gutxi samarrekin osatu da, 10-11 jokalarit hain zuzen. Nahit zuzendaritza itaipatu dutenez, kasu honetan, errefortzu gisa "hor dugu infantil taldea". Mutilen beste bi talde ere osatu dira aurten;

infantilena, 9-10 jokalaritekin, eta jubenilena, 14 jokalaritekin. Jubenil taldearekin itxaropentsu agertu da baita, Manzanok: "Aurten nahiko esperantza dugu. Gipuzkoako Txapelketan ondo, lehen bi postuetan ibili liteke".

Talde guztiokin, Usurbil Kirol Elkarteak mende Erdia bete-zear den honetan, desio bat ere badu zuzendaritza: "ia tituluren bat lortzen dugun, ia hau urte ona izan daitekeen". 2013an beteko dute 50. urteurrena ospatzeko ezin egokiagoa.

## ZUZENDARITZA BERRIA, "ILUSIO HANDIZ"

Hasi dute denboraldi honetan urtea bete du, Usurbil Kirol Elkarteako zuzendaritza talde berriak. Manzanok 12 hileotako balorazio baikorra egiten du. Bere esanetan, zuzendaritza "oso lan ona egiten ari da, pertsona berriak gogotsu sartu dira. Ilusio handia dago". Hiru lan arlo dituzte; kirol arloa, arlo ekonomikoa eta zerbitzuak. Zerbait hobetu nahi izatekotan ordea, entrenatzaileen arloa aipatzen du zuzendaritza. Entrenatzaile faltan dira. "Neronek ere entrenatzeari utzia nion, baina kadeteen taldea hartu dut, entrenatzailerik ez

baitzen", adierazi du. Gainerakoan, Usurbil Kirol Elkartetik eskerrak helarazi nahi dizkiete, bilgunean lagundu edota ekarpenak egiten dituzten guztiei.

## 50. urteurrena prestatzen

Dokumentu ofizialen arabera, Usurbil Kirol Elkarteak 2013ko urriaren 13an mende Erdia bete-kodu, 1963ko urriaren 13an jokatut baituzten lehen eskubaloit neurketa. Data esanguratsua hurbiltzen ari denez, zuzendaritza taldea jada ospakizun ekitaldiak antolatzeko lanetan murgildua dabil. "Egitarau bat badugu. Guztia prestatzen ari gara", aurreratu du Manzanok. Datorren urte osora zabaldu asmo dituzte 50. urteurreneko ekitaldiak. Tartean, hitzaldiak, elite mailako zein beterrano taldeen arteko eskubaloit partidak edota liburuxka argitalpen bat iragarri dituzte.

Horrekin batera, Usurbil Kirol Elkartearen lotua dagoen materiala bildu nahi dute: argazkiak, kamisetak, aktak, hedabideetako albisteak... Halakorik duenak, 627 271 215 telefono zenbakira deitu edo usurbilke@gmail.com helbidera idatzi dezala.

**ETXEBIZITZA**

**Salgai**

Pisua salgai Txaramunton. Berria, bi logela, egongela, terraza ikusgarria. Trastero handia. 276.000 euro. 615 720 245.

Pisua salgai Munalurran. 3 gela, sukalde jangela, berogailua. Sartzeko moduan. 180.000 euro. 943370957.

11 urteko pisu bat salgai Aginagan, 3 logela, sukalde, egongela, 2 komun, 2 balkoi, garajea (30 m) eta trasteroa. 173.000 euro. VPO baldintzak. 657703091

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukalde eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 237.000 euro.

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com) Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUAko erredakzio batzordeak ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukalde, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela, bi komun, ganbara, igogailua. 662 056 899.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpoaldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

**Alokairuan**

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Pisu bat alokatzen da Atxegalden. 4 logela, komuna, sukalde eta egongela. Tel. 653 714 672.

Pisu bat Lasarten. 3 logela, 90 metro, 2 balkoi dena kanpoaldera eta eguzkitsua. 608 671925.

Muna Lurran bigarren solairuan dagoen pisu bat. Oraintxe sartzeko prest. 3 logela, sala, sukalde, komuna eta balkoia. Amueblatua. 650 919 065

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzea egiteko aukera. 665 720 913.

Alokairuan atiko berria Usurbilen. 2 terraza handikoa. Altzairu berriz hornitua. 665 720 913.

Landetan (Vieux Boucau) apartamentu bat (4 pertsona) alokatzen da, Boucanier erresidenciazian. Aste osoa, astebukaerak, nahiz egun askeak. 653 014518

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

Pisua alokatzen da Txaramunto kalean: 3 gela, sukalde, bi komun, sala. Garajea aukeran. Abala eskatuko da. 656757073.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 [nerezabala1@gmail.com](mailto:nerezabala1@gmail.com)

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Etxe bat alokatzen da Artaxonan (Nafarroa). 4 logela, jangela handia, lorategia. Hilabeterako edota baita uda parterako ere. 450 euro. 670 090 262 (Irene)

Pisua alokatzen dut Elgoibarren. Lau gela. 677 780 680.

3-5 gela arteko pisua alokagai Castellonen, oporraldi, asteburu pasa edota ezkontza agurretarako. Itsaso, gaztelu eta mendialdeko bistak. 677 780 680.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Logela bat alokatzen da Usur-

bilgo erdigunean. 667740266.

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukalde, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 ([gauetan.deitu](mailto:gauetan.deitu)).

**MOTORRA**

**salmenta, garajeak**

1999. urteko Ford Mondeo familiarra salgai, 1.800 eurotan. Egoera onean. 652 706 518

Garajea salgai Txaramunton. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negoziagarria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 [nerezabala1@gmail.com](mailto:nerezabala1@gmail.com)

Scooter bat salgai, 450 euro. Egoera onean. 678 603 659.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaerak**

Arratsaldetan umeak zaintzeko neska bat. Nahiago Usurbilgoa eta euskalduna izatea. 676355635.

**Lan eskaintzak**

22 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da haurrak zaintzeko goizetik eguerdirarte. Espe-

rientzia haurrak zaintzen, udajolaseko begirale eta haur hezikuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat eskaintzen da haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardinertza lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

Neska arduratsua garbiketa lanetan orduka lan egiteko prest. 678 998 840.

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

17 urteko neska euskalduna, udan lan egiteko prest: umeak zaintzeko, ikasketetan laguntzeko, ... Esperientzia umeekin eta Bigarren Batxilerra amaitua. 665754889 / 634459249 (Ane)

16 urteko mutil euskalduna naiz eta udarako lan bila nabil. Umeak zaindu edo indarra behar den



**Zorionak Aingeru!**

9 urte beteko dituzu

azaroaren 3an. Ondo pasa eta muxu bat etxekoan partez!



**Zorionak Unax!**

Urriaren 30ean 8 urte bete

dituzu. Zorionak eta muxu potolo bat etxekoan partez.



Sarriren poemak dioten moduan, "maite genituen gauzengatik erori ginen preso, baina gure maitasuna oraindik ez dago preso"... ezta egongo ere! **Zorionak Patxi!**

**Heriotzak**

**Julian Pikabea Lizarreta**

59 urterekin hil zen Aginagan, urriaren 27an



Ohar, zorion agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan [erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com)



lanak egiteko prest nago, baita beste edozein lan ere. Batxilerrako lehen maila amaitua. 665754889/692577515 (Xabier)

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldari lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan.

638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hizkuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatua. Badut esperientzia. 652712099.

### BESTELAKOAK

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. (Etxera eramaten da). 667 232 300

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Larru itxura duen txaketa beltz bat aurkitu dugu Aginagako frontoian. Norbaitek galdu badu, udaltzainetatik pasa bila.

Graduatutako betaurrekoak gal-

du ditut Usurbilen, Heat markakoak (berri berriak) eta metaluzko fundarekin (beltz kolorekoak). Norbaitek aurkitu baditu udaltzainean utzi edo telefono mezua bidaltzea eskertuko nuke (675 703 276).

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Poxpolin mertzeria traspasatzen da. 636 462 210.

Kaffa inguruan betaurreko batzuk agertu dira. Galdu dituenak, optikatik pasa bila.

Hainbat produktu erabili gabeak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Ingelese hitz egin nahi, herri mugitu gabe? Ingelesko mintzapraktikarako taldea osatzen nabil. 670 382 999 (Unai).

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai prezio onean. 637 974 994 Itziar

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

## Telefono interesgarriak

|                                      |             |                                     |             |
|--------------------------------------|-------------|-------------------------------------|-------------|
| Udala . . . . .                      | 943 371 951 | Taxia (Angel) . . . . .             | 607 928 770 |
| Atez ateko bulegoa . . . . .         | 943 369 113 | Taxia (Joxe Kruz) . . . . .         | 677 373 466 |
| Udaltzaingoa . . . . .               | 943 361 112 | Eusko Tren . . . . .                | 943 470 976 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) . . . . .  | 943 370 148 | Korreos - posta zerbitzua . . . . . | 943 362 894 |
| Gizarte Zerbitzuak . . . . .         | 943 377 110 | Anbulategia . . . . .               | 943 362 013 |
| Diputazioa - Basetxea . . . . .      | 943 361 215 | Oa botika . . . . .                 | 943 376 076 |
| Bake Epategia . . . . .              | 943 372 336 | Iturralde botika . . . . .          | 943 363 395 |
| Udarregi Ikastola . . . . .          | 943 361 216 | DYA . . . . .                       | 943 464 622 |
| Haur Eskola . . . . .                | 943 374 061 | Gurutze Gorria . . . . .            | 943 272 222 |
| Zubietako Lanbide Eskola . . . . .   | 943 364 600 | Emergentziak . . . . .              | 112         |
| Zubietako Herri Batzarra . . . . .   | 943 372 077 | Gonzalez Ehorztetxea . . . . .      | 943 362 163 |
| Hastapen tailerrak . . . . .         | 943 360 465 | Gipuzkoa Donostia Kutxa . . . . .   | 943 361 202 |
| KZgunea . . . . .                    | 943 023 684 | Euskadiko Kutxa-Laborala . . . . .  | 943 364 740 |
| Oiardo Kirolegia . . . . .           | 943 372 498 | Banco Guipuzcoano . . . . .         | 943 370 006 |
| Sutegi Udal Liburutegia . . . . .    | 943 360 692 | Banco Popular Español . . . . .     | 943 370 411 |
| Zumarte Musika Eskola . . . . .      | 943 371 594 | BBVA . . . . .                      | 943 377 155 |
| Etumeta AEK Euskalgia . . . . .      | 607 609 379 | Caja Rural Kutxa . . . . .          | 943 368 842 |
| Kalezar Eguneko Zentroa . . . . .    | 943 365 249 | Argindarra - Iberdrola . . . . .    | 901 202 020 |
| Gure Pakea Zahar Egoitza . . . . .   | 943 368 770 | Gas naturala - Naturgas . . . . .   | 902 123 456 |
| Gure Elkarte Zahar Egoitza . . . . . | 943 371 751 | Telefonica . . . . .                | 1004        |
| Arrate Zahar Egoitza . . . . .       | 943 366 340 | Euskaltel . . . . .                 | 900 840 840 |

## Goardiako farmaziak azaroaren 1etik 11ra

|                   |          |            |                             |
|-------------------|----------|------------|-----------------------------|
| <b>Osteguna</b>   | <b>1</b> | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorb. 6. Lasarte |
| <b>Ostirala</b>   | <b>2</b> | ORUE       | Jaizkibel plaza 2. Lasarte  |
| <b>Larunbata</b>  | <b>3</b> | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte    |
| <b>Igandea</b>    | <b>4</b> | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte    |
| <b>Astlehena</b>  | <b>5</b> | DE MIGUEL  | Kale Nagusia 32. Lasarte    |
| <b>Astearte</b>   | <b>6</b> | RODRIGUEZ  | Kale Nagusia 42. Lasarte    |
| <b>Asteazkena</b> | <b>7</b> | GIL        | Kale Nagusia 24. Lasarte    |

|                  |           |            |                             |
|------------------|-----------|------------|-----------------------------|
| <b>Osteguna</b>  | <b>8</b>  | ACHA-ORBEA | Hipodromo etorb. 6. Lasarte |
| <b>Ostirala</b>  | <b>9</b>  | URBISTONDO | San Franzisko 1. Lasarte    |
| <b>Larunbata</b> | <b>10</b> | ORUE       | Jaizkibel plaza 2. Lasarte  |
| <b>Igandea</b>   | <b>11</b> | ORUE       | Jaizkibel plaza 2. Lasarte  |

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00etatik  
13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ECHEVESTE. Elkano kalea 9, behea.  
Hernani. Tel.: 943 552 087  
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

**JE JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**www.noaua.com**  
USURBILGO ATARIA

**TAXI**  
**24 h**  
**USURBILLEN**  
677 37 34 66 Joxe  
943 36 21 78 Etxabe

# Agenda azaroa

## 2 ostirala

- **Kutsaduraren aurkako elkarretaratzea**  
Atxegalden, N-634 errepide ondoan, 20:00etan.
- **NOAUA! erakusketaren irekiera eta luntxa.** 20:00etan Sutegin.

## 3 larunbata

- **III. Antzerkizale Eguna Usurbilen.**
- **"Publikoari gorroto",** antzezlan. Sutegin, 20:00etan.

## 5 astelehena

- **Odol-ematea, ambulatorioan.** 18:00etatik 20:30era.

## Antxomolantxakoekin, Oreretako txokolate tailerrera

**T**xokolatearen elaborazio prozesua ezagutu, barietate desberdinak probatu eta trufak edota txokolatezko piruleta egiteko aukera eskainiko du Aginagako Antxomolantxa Elkartearen ekimen berriak. Larunbat honetan, azaroaren 3an, Oreretara irteera antolatu dute, hara doaz txokolate tailer batean parte hartzera.

Irteera ordua, goizeko 10:30etan jarri dute Aginagan bertan. Joan etorria kotxez egingo da. Tailerra helduei eta 3 urtetik gorako haurrei zuzendua dago. Prezioa 15 euro. Gehienez, 15 laguneko taldeak osa daitezke.

**HILAREN 10EAN, ZUBIETARA**  
Antxomolantxakoek bigarren irteera bat ere antolatu dute, oraingoan Realaren



Tailerra helduei eta 3 urtetik gorako haurrei zuzendua dago. Ostiral honetan joango dira.

instalakuntzak ezagutzeko. Azaroaren 10ean izango da. 10:30etan abiatuko dira Aginagatik, kotxez.

## Elkarretaratzea Atxegalden

Hilabeteko lehen ostirala hemen dugu berriz, azaroaren 2a egokitu da oraingoan. Iraila eta urria egin bezala, egun horretarako, hirugarrenez kutsaduraren aurkako elkarretaratzea deitu du Itaya Gazte Asanbladak, 20:00etan Atxegalden, N-634 errepide bazterrean.

## Kultura Aholku Batzordearen bilera

Kultura Aholku Batzordea azaroaren 6an astearte elkartuko da berriz. Azkenaldian egin izan duten bezala, Aholku Batzordearen bilera Potxonean egingo da, arratsaldeko 18:30ean hasita. Herriko kultur taldeei zein eragileei irekia dago azaroaren 6ko bilera.

### Datozenak

#### 25 urte bete ditu Akerra Gaztetxeak, festa eguna azaroaren 10ean

Txokoaldeko Akerra Gaztetxeak mende laurdena bete du jada. 25 urteak ospatzeko azaroaren 10erako festa egun handia antolatu dute, eguerditik goizaldera luzatuko dena. Hona hemen, lotu duten egitaraua:

**12:00 Triki poteoa** Txokoalde auzotik. Ondoren, Josu Tellabideren hitzaldia. "Txokoaldeko zentrala eta historia" gaztetxean.

**13:30 25 urteetako argazki emanaldia eta brindixa,** Gaztetxean.

**14:30 Kantu bazkaria** Txokoaldeko plazan edo frontoian (eguraldiaren arabera). Kantu tipiko eta atipikoak. Txartelak 15 eurotan salgai Aitzagan eta Irratin.

**Arratsaldean,** joko modernoak, Txokoalden.

**21:00 Kontzertuak gaztetxean:** Mendeku Itxua+talde gehiago. Egunsentia baino lehenago, baratxuri-zopa.



Mendeku Itxua arituko da zuzenean.

**izagirre**  
ELEKTRIZITATEA  
943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirrelektrizitatea@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak  
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

**LAUKOTE**  
okindegia  
kafeteria  
LAUKOTE  
Puntapax 16, behea 943 360 980



# **K** NOAUA! ULTURALDIA 2012

Azaroak 2, 3, 10, 11 eta 30  
**USURBIL**

**AZAROAK 2**, ostirala, **SUTEGI** • 20.00: **ERAKUSKETA** eta **LUNTXA**

**AZAROAK 3**, larunbata • **III. ANTZERKIZALE EGUNA** • 20.00:  
“**PUBLIKOARI GORROTO**” ANTZERKIA • **SUTEGI** • Sarrerak: Aldez aurretik 8 euro, egunean bertan 10 euro eta bazkideak 6 euro (aldez aurretik Noauaren egoitzan)

**AZAROAK 10**, larunbata, **KIROLDEGIA** • 22.00: **ALURR** dantza garaikidearen **EMANALDIA** • Sarrerak: 6 euro. Bazkideak 5 euro (aldez aurretik Noauaren egoitzan)

**AZAROAK 11**, igandea, **SUTEGI** • 19.00: “**GAZTA ZATI BAT**”  
DOKUMENTALA • Doan

**AZAROAK 30**, ostirala, **SUTEGI** • 19.30: “**LETEREKIN KANTU  
BERBETAN**” Jon Sarasuaren HITZALDI-KANTALDIA • Doan

Antolatzailea:

**noaua**

Laguntzaileak:



Ustarbigo  
Kantu Taldea

# Gure hezkuntza eredu bateratua




0-16 hezkuntza  
proiektua zehazteko  
**usurbildarrok**  
**etorkizunerako**  
**nahi dugun**  
**hezkuntza-eredu**  
**bateratua**

**Egungo egoeraren diagnostikoa**  
**partekatzeke bigarren saioa.**

**Azaroaren 7an, Potxoenean arratsaldeko 18.30etan**



**Usurbil**



Nahi dugun eskola